

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Florentino Lamariano Agirre

*Antzuola
Gipuzkoa (1933)*

Aurkibidea



Biografia



Irimoegigoena auzoko Irasotortza baserrian jaio zen 1933an. Aita bergarra zuen, baina Antzuolara ezkondua. Eskola Nazionalean ibili zen lehenbizi 6 urterekin hasi eta 12ra bitartean, eta gerora, 17 urtera arte gau-eskolan ibili zen "Cartilla de Escolaridad" atera arte. Soldadutza egin arte Florentino baserrian bizi izan zen. Gero Eibarko JATA lantegian egin zuen lan. Lanera joan aurretik Urkizu okindegian okin lanak ikasten zituen. Mutikotan senideen Intxausti errotan ibili zen, eta 26 urterekin Antiguako errota hartu zuen. 1974ra arte egin zuen lan errota horrek, baserrietan garia ereiteari utzi zitzaion arte, hain zuzen.

Zintak

ANT-077

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-07
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ANT-078

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-04-07
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Gurasoak, biak baserritarrak

- **Erref:** ANT-077/007
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama Antzuolako Amilleta baserrikoa zen, aitaren gurasoak Bergarako Soledad baserritik etorriak. Umetan Antzuolako Irausta (Irastortza) baserrira joan ziren bizitzera.

Transkripzioa

-Zure-aitta-amak nunguak dia?

-Nere ama zan Antzuelakua, Amilleta basarrikua, ta aitta Iraustakua zegatik Soledadetik gure aittan gurasuak etorri zien Irausta basarrira, gure jaiotetxera, eta izetez gure aitta Bergarakua ta jaiotzez hemengua. Gure aitta-aittajaunak zien Bergarakuak, Bergarako Soledadetik etorritakuak Antzuelan Iraustara.

-Zure aitta Bergaran jaixua ala Antzuelan jaixua da?

-Bergaran jaixua. Ume... Bera ez zan akordatzen. Ume-umetan etorritta Antzuelan Irausta basarrira.

2. Eibarrera lanera

- **Erref:** ANT-077/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Irausta (Irastortza) baserrian jaio zen. Bost anai-arreba ziren. Ezkondu arte egon zen han, baina kanpoan lana eginda. Soldadu joan aurretik baserrian ibili zen lanean; arbolak botatzen ere bai, mendian. Soldadutzatik bueltan, Eibarren hasi zen tailer batean, JATAn; goizean, berriz, okin ikasketak egin zituen. Gero, errotara joan zen, 26 urterekin.</p>

Transkripzioa

-Zeu Antzuolan jaixua za?

-Bai, bai. Irausta Basarrixan. Irausta basarrixan jaixua naiz ni. Eta giñan bost anai-arreba.

-Eta zenbat urte arte egon ziñan zu Iraustan?

-Iraustan egon nintzan ni ezkondu arte. Baiña kanpuan lana einda, kanpuan lana einda.

-Jan be etxetik kanpo?

-Soldauxkara jun artian basarrixan. Lana in eta, klaro, gurian anaiak ni baiño askoz zaharrauak zien. Zaharrena etxera ezkondu ta zeon baiña hari laguntzen eta. Soldau jun artian basarrixan. Ba hementxe ba, batzutan mendixan be bai, lana einda nao, mendixan be ibiltzen giñan orduan arbolak botatzen eta holako lanetan. Gero soldau, soldau, zeatik etorri nintzanian hasi nintzan Eibarren tailler baten lanian. Eta handik laste hau panaderixia traspasuan zeuela, saltzeko zeuela ta.

-Panaderixia?

-Hau, oin bizi naizena. Hau. Antigua Errota da honen izena. Eta orduan taillerrian lana eiñaz gabian ibilli nintzan ogiñan ikisten Eibarko

panaderixa baten. Panaderia Urkizu. Egunez taillerrian eitten neban eta goizian goizao jaiki, hirurak lauretan eta eta handik goizeko zortzirak artian panadero eitten neban lana. Ikasten ibilli nintzan. Ikasten, ikasketak eitten, panadero.

-Eibarren ze tailler klasetan?

-JATA. Electrodomésticos Jacinto Alkorta. Oin Durangon dao hori, fabrika hori, eta hantxe ibili nintzan lanian ba tokatzen zan lekuan lanian. Eta gero ba ogigiñan hasi nintzanian ba hemen ogixa ta errotia ta asunto horrekin ba hemen.

-Zenbat urtekin etorri ziñan hemengo errotara?

-Hemengo errotara hogeta sei urtekin.

3. Errotako tranpak

- **Erref:** ANT-077/010
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>14 urte arte eskolan ibili zen, gero gaueko eskolan, baina aitagorri errota zuen, eta han egin zuen lana mutikotatik. Intxaustiko errota. Guardia Zibilaren ihesi ibiltzen ziren; errota prezintatzeko sistema. Tranpa egiten zuten, prezinto berria jarrita.</p>

Transkripzioa

-Nere gaztetako, hor hamalau urtetik... hamahiru urte arte eskolan ibili giñan, gero gaueko eskolan eta puxkat. Gure aittak-eta zeuken errota bat. Hiru sozion artien hiru koiñatuen artien, eta han lana mutiko-mutikotatik, hamalau urte ezkerre han lanian.

-Beste errota baten? Hemen ez?

-Ez, beste errota bat euan eta asko ikesi, errota-eta pikatzen eta. Eta Guarda Zibillekin burrukan'e bai garai haretan. Bai. Orduan errota prezintau eitten zittuen.

-Zein zan errota horren izena?

-Intxaustiko Errota.

-Eta hori euen hiru koiñatuen artian?

-Bai. Euen, eta ni mutil gaztia hantxe aittakin eta anai zaharrauakin eta hantxe holaxe. Gero errota prezintautu egoten zienian gauez, Guarda Zibillen igesi, eta gauaz lana ein eta gero goizian atzera errota garbittu ta kurioso utzi-ta. Errota prezintatzeko guardazibillak zeuken sistema bat, alambre bat pasatzen eben harri bixen bittartetik, tartetik, eta punta bixak sartzen zittuen plomozko prezinto baten, plomozko danak izeten dien moduan, eta gero aliketa batzuekin klak!, plomo haura estutzen zan, geratzen zan eurak prezintautu utzi balebe bezela. Baiña gure anai zaharrak tranpa bat bazeukan orduan. Klaro, tranpa billau bihar izeten da holako kasotan-eta. Eta zeukan lehengusu bat Eibarren instaladorea zana, Electricidad Arana, oindio martxan dao, ondio segitzen dau, hantxe dao Urkizuko Plazan. Eta harek kontadoriak prezintatzeko zeuzkan aliketa batzuk plomuan prezintua estutzeak. Baiña problema bat eukitzen giñuan: harek zeuzkan aliketiak letrak zeuzken, eta zan Siemens Industria

Eléctrica. S, M, tal-tal. Eta hemen guardazibillak ekartzen zittuen aliketiak errotako harrixak prezintatzeko ipintzen zeban Servicio Nacional de Trigo. SNT. Klaro, harek jotzen zeбенien, guardazibillak argixak izan balira, baiña gure anaiak ipintzen otsen txapatxo bat letrak ez jotzeko, baiña prezintau harrixa igual-igual itten eban, eurak bezelatxe. Plomua sartu, ipiñi plomua, sartu punta bixak han ta klas!, estutu txapa bat ipinita letrak ez jotzeko-ta. Hurrungo bihar zanian, hurrungo egunian edo hurrenguan berriz'e soltau... Gabaz, e, gabaz; soltau, ekinaldixa ein eta goizian eguna argittu baiño lehen edo Guarda Zibillak mobitzen hasi baiño lehen, atzera sartu alanbre punta bixak han, estutu aliketiekin eta etxera. Makiña bat halako einddakua naiz ni, hasi hamalau urtetik eta soldau jun artian, hor muga hortan danera ibiltzen giñan orduan.

4. Antiguako errota

- **Erref:** ANT-077/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:09. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Ezkondurte egon zen Eibarren. Gero Antiguako errota hartu zuen. Labea berritu zuen, 1960. urtean, eta ogia egiten hasi zen.</p>

Transkripzioa

-Eibarren zenbat denpora egin zeen?
-Ba hogeta hiru urte, lizenziau nintzanetik hona etorri arte, oin bizi naizen lekura etorri arte. Ezkondurte nintzan arte.
-Ezkondurte ziñanian errota hau hartu zeen?
-Bai, bai. Ezkondurte nintzanerako errota hau hartuta neukan.
-Ya lanian hasitta?
-Ez, lanian hasteke. Lelengo lana ein giñuana, oin hor daon labe hori ein eta. Ezkondurte ta hasi nintzan.
-Zuk Antiguako errota hau hartu zeбенian, ondiok hemen ogirik ez zan egiten?
-Bai. Baiña labia zeon oso zaharra, eta labe hori berrixa neuk ein neben. Oin zaharra da hori be. Labe hori ein zan milla ta beratzirehun eta hirurogeigarren urtian, in zan labe hau, eta ya labia ein zanian ogi eitten hasi nintzan hamen. Puxkat ikisi neben Eibarren eta.

5. Eskola egunez eta gauez

- **Erref:** ANT-077/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Eskolan sei urterekin hasi zen, nazionaletan. Erdaldunak ziren maisuak. 12 urte arte ibili zen. Cara al Sol kantatzen zuten, eta Koroso aldera joan, eta gerrara jolasten zuten maisuekin. Gaueko eskolan ibili zen, maisuarekin, 14-15 urterekin.</p>

Transkripzioa

- Joan gaittezen pittin bat atzera. Pentsaitten dot eskolan hasiko ziñala Antzuolan?
- Eskolan hasiko nintzan ni sei urtekin edo hola.
- Eskola txikiñian hasi ziñan zu be?
- Orduan eskola txikirik... Eskola txikixa zeon umiak-eta hartzen zien lekuak, baiña ni ya hasi nintzan eskolara ya "Nacionales", eskola nazionaletan erderazko maistruakin, maixuekin. Eta guk hitzik be ez erderaz, eta harek euskeraz be ez eta benga han zelabaitt entenditzen hasi giñan. Eta gero eskolan ibilli nintzan hamabi urtera arte. Eta gero..., orduan ez giñuan asko ikisi, e.
- Seikin hasitta?
- Seikin hasitta. Orduan ikisi giñuan 'Cara al Sol'a kantau ta Koroso aldera ta jun maixuekin eta gerrilletan eta, hola prisionero grupuak patrullekin eta, harrapatzen eta hola.
- Gerria orduantxe akabauta...
- Akabauta, akabauta gerria zeon, eta holako zerak. Gero ibilli nintzan eta kartilla eskolaridadia daukat etarata ni[k] gabeko eskolan. Bueno, gabeko eskolia esaten jakon, eskola partikularra egoten zan ba hamalau-hamabost urteko mutil gaztiak pagauta, maestro nazionalak gabetan emoten eben eskolia eta nik daukaten eskola apurra, asko ez neban ikasi artian, harrezkero biharak erakusi dostan eskolia daukat nik. Baiña aillegau nintzan kartilla eskolaridadia, Estudios Primariosetako zera etaratzera aillegau nintzan.
- Gabaz ikasitta?
- Gabaz, gabaz, gabeko eskolia esaten jakon, gabeko eskolia. Orduan etaratakua daukat kartilla eskolaridadia. Estudios Primarios oin esaten dabe.

6. Gaueko eskolak

- **Erref:** ANT-077/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Gaueko eskolara baserriko jende asko joaten zen. Eskola partikularrak. Lehenengo eskolan dotrina, gimnasia eta instrukzioa. Irakurtzen ere bai, baina idazten gero ikasi zuen gehiago. Neguan bakarrik izaten ziren, iluntzean ordu pare bat.</p>

Transkripzioa

-Hamabi arte normal?

-Normal, normal. Gero, handik aurrera, negu partian sobre todo, egoten zan hori Gaueko Eskola. Eta basarriko jente asko orduan, nere moduan ba nere lagunak, nere kuadrilla inguruko danak ba urte bat edo bi gehixao-gutxitxuao, baiña... Gabeko eskolak egoten zien, eskola partikularrak esaten jakon, gabeko eskolak. Batzuk ibilli giñan, beste batzuk ez. Eta ni orduantxe ba orduantxe zerbait ikisi giñuan, zegatik eze gure lelengo eskolia ez zan izeten dotriña, gimnasia, istruziñua... Maestro nazionalak horrek erakusten oskuen guri umetan, mutikotan.

-Dotriña, gimnasia eta istruziñua?

-Bai. Hori, hori...

-Eta kontuak eitten eta irakurten eta holakoik ez?

-Gutxi, gutxi, gutxi... Bai, irakurtzen ikisi giñuan irakurtzen eta. Baita, bai, lau reglak behintzet, sumarra, restarra ta dibiditzen, eta kebrauak esaten jaten orduan, ailegau giñan hareaiño be eskoletan, baiña gero ya hau puxkat problemak-eta, idazten eta diktauak eta, horrek ya geruao.

-Horrek gabaz ikasi ziñuzten?

-Horrek gabaz ikasi giñutzen. Irakurtzen eta historia puxkat eta. Gabaz, e, gabeko eskolan.

-Eta gabeko eskola horreittan zenbat urte arte egon ziñan?

-Ba hor egongo nintzan ni hemazazpi bat urte, hemezortzi urte. Gaiñera horrek neguan izaten zien bakarrik, e. Negu-partian, e. Egunez lana ein basarrixan eta gero illuntzian eskolara. Gero granujerixa bazuk eitten giñuzen eskolatik ertendakuan gabian eta hola izeten zan. Juerga bat izeten zan, e, baiña...

-Gustora eskolara.

-Gustora eskolara. Eta eskolia izaten zan ba ordu pare bat edo hola egunian, e. Illuntzien zazpjetatik, seiretatik zortziretara edo izeten zan eskolia. Eskolako ordua hola izeten zan.

-Baina neguan, gabian lanik ez zebeñian eitten.

-Bai, bai, neguan, neguan. Egunez lana ein eta, basarrixan edo tokatzen zan lekuan eta gero illuntzian eskolara. Hori hamabost, hamasei-hamazazpi urtera arte hiru bat negu ingo nittuan nik. Eta lehen esan dotena: ikisi giñuan apurra orduantxe ikisittakua.

7. Instrukzioa eskolan

- **Erref:** ANT-077/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Soldadu zihoazen mutilei instrukzioa erakusten zien maisuak, pilotalekuan. Instrukzioa erakusten zieten eskolan ere, Cara al Sol kantatu eta desfilea ere egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Umetako kontuak ba umetan dotrinia atzetik aurrera eta aurretik atzera. Gero orduan zeren maistruak. Akordatzen naiz ni gu mutikuak. Soldau

juteko mutillei instruziñuak erakusten otsen pelotalekuan maistruak domeka goizetan. Eta gu juten giñan harek ikustera eta esaten giñuan: "Joe, horrek baiño hobeto eitten juau guk instruziñua". Maestro nazionalak instruziñua erakusten soldau renplaz....

- Kintueri?
- Kinttuei.
- Entzun barik neuan hori.
- Ba hori ni hemen naon bezela, hori egixa da.
- Pelotalekuan?
- Jai goizetan, soldau, filetan integratu bihar zebe kintuei instruziñua erakusten otsen maestro nazionalak. Eta guri astian egunero gimnasia, instruziñua, 'Cara al Sol'. Formauta, e, 'Cara al Sol', eta danak. Gero Antzuelan zeren moruen gerrako fusillak zeren Antzuelan, eta harekin.
- Desfilekuak?
- Desfilekuak! Danak! Eta lehen esan dotena, jun horra Azalditta-Lizargarate aldera ta gu patrullak ein eta. Sistema, e...
- Lehen aittatu dozu Koroso. Basarrira?
- Ingurura.

8. Erromeria Lizargaraten

- **Erref:** ANT-077/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Lizargaraten igandero egoten zen erromeria, eta hara joaten ziren. Han ikasi zuen dantzan. Sarramendiko Gregoriok jotzen zuen soinua.

Transkripzioa

- Hori Oñati da.
- Bai, badakit Oñati dana. Guk dantzan ikisi giñuan lekua Lizargarate da.
- Hango erromeixetan?
- Hango erromeixetan. Lizargaraten jaiero egoten zan erromeixia orduan eta gu Antzuolatik gu kuadrillia Lizargaratera juten giñan. Hango neskakin dantza eittera. Oñati hor, e, Askazuri, Koixkar...
- Aurreko Mendi dana.
- Aurreko Mendixa, zuek Oñatin Aurreko Mendixa esaten jatzue. Bai, hor erremeixia itten zan jaiero. Oiñ zertuta dao, inbalido dao, baiña Gregorio Sarramendikuak joten zeban soiñua, ta Beittiko Pilar haren andria ta Beittiko Pilar ta Jesusa ta Goittikuak horko neskak [...]. Han ikisi giñuan dantzan, Lizargaraten. Ikisi ez, bueno.
- Aurreko Mendixa ta Larraiña ta...
- Dana holaxe.

9. Indar-etxearen kargu

- **Erref:** ANT-077/022
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Irastortza baserría ez zen handia. Lau-bost behi zituzten. Ardirik ez zuten. Indar-etxea zuten aitak-eta, eta Arranderiri eta beste baserri batzuei argia ematen zieten. Umetatik ezagutu ditu argia, ura ere bai. Etxe ondoko posaderak 18 metroko sakonera du. Neguan, ganaduari ura emateko handik ateratzen zuen aitak, depositukoa kristalduta egoten zelako.

Transkripzioa

-Irausta (Irastortza) basarri horretan, zu jaixo ziñen baserri horretan ganaua-ta asko zeukatzuen edo?

-Bueno ez, ganau asko ez giñuan eukitzen. Guk lau-bost behi. Idiik be ez zan egoten. Ez zan basarri haundixa. Ez da /ezta/ basarri haundixa. Hementxe dao, bertan dao. Ez zan basarri haundixa. Lau behi, bost epoka batzutan eta beren txahalak. Ez zan basarri haundixa.

-Artalderik?

-Ez. Ardirik be ez, ez. Gure aittak-eta zeukena zan hola ogibide bezela indarretxe bat zeuken, jeneradore batekin, eta hemen basarritara, basarri askotara; Arrandeira (badakik nun daon Arrandei?). Bueno, basarri askotara argixa emoten eben, eta kalera be bai. Alunbrau publikua be horren zentraletik eta. Klaro, dirubideetxo bat zan. Basarrixa txikixa zan baiña beste gauza batzutarra aplikauta zeuan.

-Makinetxia edo?

-Bai, baiña eurena zan zentrala. Bai, bai, zentrala eurena zan. Oinddio han dago zentrala, jausteke dao. Eta han zeuan jeneradore bat, eta bueno, garai hartarako argixa behintzet, argixa.

-Zuk orduan umetatik ezautu dozu argixa etxian?

-Bai.

-Eta fregaderan ura?

-Ur berua bai. Ezautu dot nik.

-Sukaldian kanillan ura?

-Ura bai. Beti ezautu dot nik nere denporan uragure basarrixan korriente zeuan. Gero aparte zeuan etxian onduan pozadera bat, ondio han dao, 18 metro profundidadia, honduria dauka harek pozadera harek. Ibilitta nao haren honduan ni haura garbitzen. Bai, behin, behin, holaxe mutil gaztia nintzala.

-Lotuta?

-Bai, eskillara zerian sartuta. Puxkat konuan dao, eta behera estutxuao, behera estuxuao, behian justu-justuan buelta itteko mutikuak, mutil gaztiak, ibilitta nao garbitzen. Baiña ur ona, e. Bai, bai, pozaderako ura, ura oso ona. Eta neguan ganauei emuteko be, ura hotza emoteke itturrikua, gure aittak handik etarutzen eban ura ganauei emuteko. Bai, eta ondo eraten zeban ganauak haura. Itturrikua baiño naixao haura.

-Itturrikua depositotik etorriko zan?

-Bai ba. Depositotik.

-Teillatuko...

-Ez, teillatukua ez, bestela manantial batetik ekarritta geunkan baiña bide askuan tubuan etorritta ta ura hotzaua egoten zan, hotza. Kristalduta, etxe aurrian ganauak ura erateko askia euan baiña haura askotan kristaldua egoten zan eta han baiño nahixao izeten eben handik etaratako ura erateko. Ganauak antz emoten otsen.

10. Lixiba egitea

- **Erref:** ANT-077/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Lixiba egiten zen. Beheko suan ura egosi, eta barrikan, sutako hautsarekin. Albergan kentzen zitzaion hautsa, eta esegi.

Transkripzioa

-Erropak eta?

-Lixibia, lixibia eitten zan orduan. Beheko sua, eta han egosten zan eta aldamenian egurrezko barrika bat sutako hautsa eta erremuakin eta. Lixibia eitten zebe, ni akordatzen nok horrekin.

-Puxetia.

-Hemen lixibia esaten jakon. Han izarak eta zerak garbitzen zien. Ur berua beheko sutan berotu eta bota haura handik handdik behera, eta azpitan atzera eta hori. Hori uste dot basarri danetako sistemian izango zala hori.

-Gero hautsa ta kentzeko?

-Gero albergan. Aurrian "pietarrixa". Pietarrixa esaten jakon hango harrixai eta albergan sartu eta han aklarau eta gero zerian, etxe aurrian alanbretan esegi eta. Bai, hori basarriko daneko kontua zan hori.

11. San Balandran eguna

- **Erref:** ANT-077/026
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:27:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>San Balandran feria. Herri-saila zen, Antzuolakoa, baina Bergarako Gabiria baserrikoen baimena behar zen erromeria eta bolalekua jartzeko. Belarra mozten zuten, baimenaren truke. Soinu-jotzailea. Bola lehiaketa. Beraiek antolatzen zuten eguna. Karamelo saltzaileak. El Caserio tabernako gizona zahagiekin joaten zen, gurdian. Lizargaratera jaiero joaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Aurreko Mendiko batzuekin egon naiz lan hau eitten eta haik esan dostai Lizargaraten baiña ya Antzuola aldera Azaldittan egoten zala urtian behin edo izugarrizko...

- San Balandran. Haura Antzuela partian dao. Terrenoz Antzuela. Ene!, guk zenbat aldiz, mutikuak eta hamalau urteroko guztian ibilli giñan gu hor; San Balandran eguna guretako egun haundia izaten zan. Eta urte bi..., bi edo hiru urtetan haura herri-saila da, herrixan saila zan haura. Baiña albuan zelai bat zeuan Bergako Gabirixa basarriko belarra eruaten zebena eta haren baimena bihar izaten zan han erreimeixia eta bolalekua montaitteko (sic).

Eta bolalekua be montaitten zebe?

- Bai, geuk. Gure parian guk. Beste epoka batzutan beste batzuk. Eta bi aldiz zelai hartan belarra ebaitzen ibilitta nao ni eta nere lagun batzuk deretxua eukitzeko...

- Baimena lortzeko?

- Bai, bai. Baimena lortzeko bolatokixa eitteko, eta gero soiñojolia

kontratatzan genduan mutikuak, mutilgaztiak diru, zeoze txanpon puxkat etaratzeko zeakin. Geo konkursua ipintzen zan, bola konkursua, konejo paren bat ipintzen giñuan edo zeoze, eta hola organizatzen zan San Balandran eguna. Eta gero soiñojolia kontratatzen zan eta hari pagatzen jakon hainbeste ta jente asko xamar juten bazan ondo urtetzen ziñuan, gutxi juten bazan ba poltsikotik igual ipiñi bihar. Eta holaxe izaten zan hori.

- Ganauak-eta batzuk eruaten ziela; edo ez?
- Nere akorduan ez. Nere akorduan ganaurik ez da egon. Hara etortzen zien karamelo saltzaillak eta. Bergako Ubitta (Ubieta) basarriko, Ubittako gizona manduan madarixak-eta saltzera-ta.
- Eta [esan dostenez], baten bat etortzen zala burdixakin barrikia edo.
- Bai, bai. Hemen tabernia zeuan orduan, Bar El Caserio. Hemengo tabernarixa, hemengua, juten zan hara zaragixan ardaua hartu.
- Hori da. Zaragixan.
- Zaragixakin. Bai, bai.
- Burdixan?
- Bai, burdixan. Igual bi zaragi-ardao eta beste zerbezan batzuek eta. Burdixan, hemendik, eta ez zeon orduan pistarik, bide zaharretatik gora, honek jasotzen eban, hemengo tabernarixak jasotzen eban ardaua eta han saltzen zan jentia bokatillua jateko-ta. Artien kalimotxoik ez zeban existitzen baiña...
- Koka Kolaik be ez.
- Ezta, baiña jentia meriendak-eta eitteko ta hemendik ardaua. Gero ba sasoikuak, diru puxkat zeukenak ba sua ein eta txuletak erretzen parrillian eta gu mutikuak hari begira egoten giñan inbidixa galantakin, baiña guretzat ez zan aillegatzen holakoik eta. Hola zan Azaldittan, bai, San Balandran. Hori zuten da Agostuan Andramai hurrengo jaixa, Andramai hurrengo jaixa. [...] Gu berriz Lizargaratera erremeixara ba urtetan jaiero. Baiña urtetan, e. Hasi hamabost urtekin eta hemeretzi-hogei urtera arte.
- Hemendik ibilalditxua, ezta?
- Hemendik ordubete pasautxo.

12. Gerra garaiko oroitzapenak

- **Erref:** ANT-077/030
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:30:03. **Bukatu:** 00:34:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Gerra garaian oso umea zen, hiru urte zituen. Maristetako ermitan kapilaua egoten zen; ermita erre zenekoa gogoratzen du. Ospitalean atzeguardiakoak ibili ziren, italiarrak. Zangatan etzanda egoten zirela akordatzen da. Zubipe batean nola sartzen ziren ere gogoratzen du. Maristen elizari sua nork eman ote zion.

Transkripzioa

-Kontaidazu faborez zerbait akordatzen bazara gerra denporako kontuak.
 -Ni neu gerra-denporako... Bai, oso umia nitzan eta nik, hau ez jata /etxata/ ahaztuko bizi naizen arte, rekuerdoik haundiña eta gure etxetik bista-bistan zeon Maristetako kapillia, hor maristak zeren, Hermanos de la Enseñanza Cristiana edo, horren izena hori zala uste dot, Hermanos de la Enseñanza... Baiña horrek ez zeuken /etzeuken/mezaik, meza bariak dia

horrek, horrek profesoriak dia.

-Maristen eskola Oñatin be baeuen.

-Oñatin be egongo zen, eta Zarautzen'e bai, eta bueno. Eta hor zeon kapilla bat, eta kapilla hortan egoten zan kapillaua. Kapillia..., ermittia, ermita bat egoten zan. Hor zeuan, kapillau bat egoten zan hor. Hori egon zan ba gerora arte. Hortik maristak jun ziela izengo dia, nik ez dakitt zenbat urte konkreto, baiña. Berrogei bat urte edo hola izengo dia maristak hortik jun ziela. Eta hauraxe kapillia erretzen. Eta gu artien hiru urtekin, baiña hauraxe erretzen, hoixe akordatzen naiz. Eta beste detaille bat gerrakua, hemen hau guk ospittala esaten jau, baiña uste dot hau zala, lehenao leprosuak eta rekojitzeko zerak egoten zien ba.

-Leproserixia.

-Leproserixia.

-Horrek beste izen bat be badauko.

-Euko dau beste izen bat'e. Bueno, hor ikusten dan hori. Oin Dia dao, Centro (de) Día dao. Hori udaletxiak kodeatzen zeban, eta hor egon zien puxkat retaguardixakuak edo izaten zian hola, italianuak ziela, gerran ibilittakuak.

-Hona etorri zien italianuak eta alemanak be bai.

-Italianuak, baiña hemen ibilli zienak, nik gure aittai-ta gero entzunda, italianuak ziela. Eta hor hemen igual Deskargatik-eta bonbak botatzen zittuenian Intxorta aldera eta hemen, horrek hor akordatzen naiz zangatan, so baztar..., trintxeratan, etzanda egoten zien horrek. Hauraxe akordatzen naiz, italianuak ziela-ta. Hemen, hementxe. Hau egon zan ba, ez dakit, intendentzia moduan funtzionatzen zeban, soldau mordua egon zan hemen. Ospittala. Guk, horren izena orduan Ospittala zan, Antzuelan danok Ospitalakin entenditzen giñuan.

-Leprosuak eta zure garaixan...

-Ez, ez. Nik hori entzundakua da, entzundakua. Honek beste izen bat'e bazaban, gure aittak eta, baiña ez naiz akordatzen. Baiña hortako indakua zala hau.

-Eta hor egon zien italianuak?

-Italianuak egon zien hor. Hori udaletxiak dominatzen zeban, kodeatzen zeban hori-ta. Italianuak egon zien hor.

-Hemen Antzuelara bonbarik eta ez zan jausi, ezta?

-Ez, neu ez naiz akordatzen. Oin, ni akordatzen naiz, souan lanian igual eta aittak hartu bizkarrian mutikua eta hor sartzen giñan zubipe baten eta. Bai, bonbak, e, bai, hor Deskargatik behera gatozela..., klaro haura zubi bat bolau ein eben nazionalak honek ez sartzeko, gorrixak ez sartzeko... Edo gorrixak nazionalak ez sartzeko? Ez dakit. Bata edo bestia.

-Maristena zeñek erre eben ba?

-Ba..., batzuk esaten zebeu batek erre dabela, bestiak..., jakingo dabe hori, zierto jakingo dabe, baiña hemen orduan nik aittutakua ba batzuk botatzen zebeu kulpia nazionalistei eta bestiak nazionaliei, baiña haura, sua emun otsenak honek, hemen sartu zienak, neretako, e. Nik uste baietz, ez dakit. Hori ya ez noia hor sartzera zeatik e...

13. Errazionamendua

- **Erref:** ANT-077/031
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:36:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Zubipean nola ezkutatzen ziren. Hegazkin bat nola erori zen.

Errazionamenduaren ilaran egoten zen. Osaba alkate zen gerra aurretik, eta etxea erre kisatu zioten. Ogi txarra. Ogi faltarik ez zuten izan, errota izanda.

Transkripzioa

-Lehen orduan gordetzen zifñain zubipeian?

-Bai, bai. Zubipian, bai. Baita hor baztarra jo zeban abioia Altzetan. Haura hor Intxorta, Deskargan edo zulatuta zetorren, ta hemen baju-baju, eta gure aittak akordatzten naiz, gure aittak-eta bizkarrian hartu ta ra! Hor kaiñu bat euan, kaiñu haundi bat euan hor. Ur kaiñua, eta han azpira juden giñan.

-Baezpada be.

-Baezpada be, baezpada be. Gero harek abioi harek, klaro, Deskarga ezin pasau izan eban, alturaik ez zekarren /etzekarren/, behera bajatzen-bajatzen eta hortxe baztarra jo eban, Altzetako basarrixan azpikaldian. Gaztaiña zahar batzuk eta akordatzten naiz zela, gero haura zela dana desguazau eta piezak soltau eta ekarri eben honaa eta; pilotua hil ein zan. Piloto bakarra zoiarren, e. Bakarra zoiarren. Hil ein zala esan eben. Klaro, nik orduan ba lau urte neuzkan eta ez dauzkat nik orduko gauzak. Baiña entzundakua.

-Zuk goguan izango dozu, eta gaiñera basarrixan bizittakua bazara, razionamentua-eta lehen kontau dittuzun gauzak [ezautuko zifñuzen].

-Razionamentua, hoixe razionamentua. Ni razionamentuan txandan egotera aillegauta nao.

-Kolan?

-Kolan, bai, bai. Eta hori, razionamentuaren kola hori egoten zan gerriak urten ebanian nere osaba zeuan hemen, tio zeuan alkate. Gure aittan anaia. Eta harek etxe bat zeukan, bera zapaterua zan eta zapaterixia eukan. Eta hari etxia rekisau otsen eta razionamentua, oin Antzuelan arraindegixa daon lekuan emoten zan razionamentua, razionamentuko jenerua, olixua edo hau edo hori edo bestia edo holako zerak. Akordatzten naiz nola emoten zeuben.

-Ogixa be emuten zeuben?

-Ogi moduko bat. Holako zer batzuk. Baltza ta txarra. Guk geuk, klaro, errota-ta laguntasuntxua-ta. Ogi falta haundirik be ez giñuan euki, oin beste gauza batzuk inbirixa galanta pasau be bai. Txokolate gutxi egoten zan, gaurko umiak beste txokolate ez zan ibiltzen. Eta olixua ta horrek danok neurtuta, azukarra ta. Hain neurtuta eze, ez zan /etzan/ aillegatzen eta.

14. Astoaren azpian, ezkutalekua

- **Erref:** ANT-077/032
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garia eta arto zati bat entregatzen zen. Baserri batzuetan gorde egiten zuten. Astoaren azpian gordetzen zuten beraiek, gurdiaren gupilaren azpian. Miaketekin ez da gogoratzen, baina ibiltzen ziren horretan. Batzuek erosi egiten zuten, entregatzeko.

Transkripzioa

-Eta zuen arto eta gari eta entregau egin bihar izango zifuen, ezta?
-Parte bat entregau eitten zan, bai. Ba orduan deklarauta zeuan "cuantas áreas de siembra. Pues de ahí calculaban; si el año fuese bueno fuese malo era igual, había que entregar". Bai, "fanegas", bai. Basarrixan gordetzen-eta ibiltzen zian, akordatzen naiz ni. Gure basarrixan euan astua lotuta egoten zan tokixan, gairian astua lotuta. Haura ez zeuan topatzeik ezta... Nik zenbat aldiz harrezkero... Gure aittai-ta nola akordau jaten haura. Astua azpitan, lurrian zulo biribil bat in. Biribilla ez, baiña bastante barrura, e; gairian burdixan burpil bat bota, biribil-biribilla, burdixan burpilla bota eta harekin tapauta egoten zan, eta gairian astua. Eta azpitan babia ta etxian biharreneko gauzak.
-Orduan etorri eta registra eitten zittuen basarrixak?
-Baietz esaten dabe. Ni neu horrekin..., gurian sekula erresjistratzera etorri zienik-eta ez nok akordatzen, baiña bai-bai, rejistratzen ibiltzen zien basarrixak, e.
-Tokaitten zana ez bazeben pagatzen, zer?
-Ez dakit zela zertzen zien. Erositta eruandakuak'e bai batzun batzuk. Erosi, gero entregatzeko erosittakuak be.

15. Beldurra eta jazarpena

- **Erref:** ANT-077/034
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:41:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Dirurik ez zegoen orduan; baina jendeak beldurra zuen, eta erosi ere egiten zuen entregatu beharrekoa, ez baldin bazeukan. Bere familiak jazarpen handiak izan zituen gerra ostean. Osaba alkatea zen, eta Frantziara joan zen. Lau anaia eta arreba bat ziren. Bi anaia gudari eta bestea Francorekin soldadu. Aitak isuna ordaindu behar izan zuen. Anaia zaharrena kartzelan egon zen urte askoan. Bueltatu zenean, sei urteren ondoren, anaia ez zuen ezagutu.

Transkripzioa

- Erosi. Bildurra, ze tamaiñotako bildurra eukan orduan jentia! Erosi udaletxera eruateko.
- Diru asko ez zan ba egongo orduan.
- Dirua, ze egongo zan ba dirua! Diruik ez euan orduan! Orduan ez zeuan / etzeuan/ diruik! Baiña bata txahala salduta edo burdikara egurra kalera ekarri panaderixara ta harexen diruakin... Aillegau zan situaziño horretaraiño.
- Gogorra, e.

- Gogorra, puf! Orduan, e... Oin harrezkero lagunekin-eta komentautata, orduan zeuan, bildurra zeuan orduan, jentia bildurrez bizi zan orduan, bildurra. Bildurra zeuan. Nere, gure ustez. Nik hala ikusten neban nik. Gero hemen be famelixak batzuk persegiduaak izan zien bestiak baiño. Beti pasatzen dan moduan. Ta gu, gu, gure familixia oso persegidua izen zan gerra ostian. Tio alkate zeuan, harek hanka ein zeban Frantziara.

- Nazionalistia tio?

- Nazionalistia, bai ba. Alkate nazionalistia zeuan orduan hemen Antzuelan. Beste leku batzuetan be bai. Eta gure aittan anaia zan eta gu oso.... Hara!, gu giñan lau anai eta arreba. Anai bat frentian heridu eta Zaragozan ospitalian. Bigarrena Teruelen Batallón de Trabajadoresetan, prisionero hartuta hemen Santoñan edo ez dakit nun. Eta hirugarrena soldau Francokin, hemezortzi urtekin junda. Eta gure aittak artian multia pagau bihar izan eban.

- Multia zerena?

- "Por ser nacionalista, por no ser adicto". Denunzia bat. Eta herriko persona batek firmauta.

- Hori herri danetan pasau zan.

- Gurian'e bai. Horreatik esaten dot gu izan giñala oso..., hori goguan daukat nik. Ni umia...

- Zuek gaiztuen banduan, irabazi ez zebeenen banduan.

- Bai ba, los perdedores. Nere arreba, ni baiño hamahiru urte zaharraua zana; anai zaharraua, berriz, ni baiño hogeta lau urte zarraua zana. Eta nik ez neban ezautu... Nik ha etorri zanian..., gero Ondarretan egon zan ez dakit zenbat urtian.

- Kartzelan?

- Zaharrena, e. Lelengo heridu, eta balazua zeukan iztarrian. Bueno, gero sekuelaik ez jakon /etxakon/ geratu eta bale. Haura hemendik ezkutau zanian, klaro, nik hiru urte neuzkan, eta hura etorri zanian beratzi urte neuzkan nik. Nik ez naben ezautzen anai zaharrena.

- Zu jaixo barik...

- Ez, jaixota. Bai ba, ni hiru urtekin. Haura hemendik jun zanian hiru urte neuzkan. Baiña hiru urtekin imajena be gastau, galdu itten da, eta ha etorri zanian, ha etorri zanian nik ez neban ezautu. Berak be ez ni, e. Normala dan moduan.

- Sei urte alkar ikusi barik.

- Sei urte alkar ikusi barik. Ondarretan ez dakit zenbat urte ein zittuan eta lehen aurretik Zaragozan heriduta. Eta holaxe zien gure garaiko kontuak, ordukuak. Eta gure aittak-eta multia pagau eben orduan. Zenbat-eta ez dakit, errialetan izango zan. Baiña...

16. Kupoa noiz kendu zuten

- **Erref:** ANT-077/036
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Soldadu joan baino lehen kendu zuten kupoa, 1945-1950 urte inguruan. Hornidurakoak lotsagabeak ziren. Madariaga baserrikoek eskopeta zeukaten etxean.

Transkripzioa

-Berrogeitik berrogeta bostera edo hola kendu zan kupo, entregau biharra ta horrek. Uste dot hor. Igual lehentxuao igual, e.

-Zu ordurako ia hemen zaozen?

-Ez, ez. Ni hirurogeixan etorri nintzan honutz. Ni hona etorri baiño bastante lehenao kendu zan hori. Ni soldau jun baiño lehen. Cincuenta y tresian jun nintzan ni soldau eta hori lehentxuao. Cuarenta y cinco-cincuenta bittarte hortara holaxe kendu zan hori.

-Esan dozu hogeta seikin ezkondu ziñala.

-Bai.

-Orduan ciencuenta y nueve ya hemen zaozen.

-Bai.

-Hamarkada bat lehenao?

-Bai, hamarkada bat lehenao edo hola. Gero errotak-eta libre egon zien, normaltzen jun zan puxkat bizimodua. Oin akordu jat gauz bat, hor etortzen zienak losagabe batzuk zien Abastos-etatik, Abastosko jentia etortzen zan garixa pixatzera-ta, bestiak-eta. Hemen zegon famelixa bat Madarixa baserrixan ba puxkat berezixak zien erak, e. Berezixak eta puxkat tokedunak zien Madarixa basarrixan eta. Eta harek eskopetia-ta, orduan zenbat egongo zien, harek eskopetia zeuken etxian eta, hor etorri zan batek haura amenazau ein eban: "Vamos a subir a registrar el caserío" ta. "Sartu eingo haiz, urtetzen doken ikusikok!" (barreak). "Sartu eingo haiz, urtetzen doken ikusikok!".

17. Pazkoatan Bergarara

- **Erref:** ANT-077/038
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Pazkoetan Bergarara joaten ziren beti, umetan amarekin. Zinemara behin joan ziren hiru lagun Bergarara, eta ia kongregaziotik bota zituzten horregatik. 18-19 urte zituen. Kongregazioan zer egiten zuten. Hilean behin elkartzen ziren. Mezak. Irundegian 150 lagun zebiltzan lanean, eta gehienak lo egoten ziren gaueko erreleboa egin ondoko mezetan.</p>

Transkripzioa

-Bape ez zeunken joerarik hemen inguruko jaittara ta joateko?

-Pazkoetan Bergara bizi guztian. Lehenengo amakin eta gero puxkat hola hamahiru bat urte edo ailegau giñanian eta egun baten Bergara Pazkoetara juten giñan. Baiña Bergatik kanpora gu oso gutxi. Geu, e! Kaletarrak-eta gehitxuao, baiña gu...

-Zinera fateko ta ez zeunken...

-Puff, zinera juteko... Akordatzen naiz zinera. Zinera jun giñan behin, baiña ordurako ia... Baiña artian soldau juteke egongo giñan. Hiru lagun Bergara.

Ta pelikulia zan "Arroz amargo". Aittuta daukak?

-Ez, ez.

-Ez dakit zein zan aktore, Sara Montiel... Ikusten zan hola puxkat zera jausten jakola... Haura egongo zan ba de 4R edo de 3R kalifikauta egongo zan haura. Jode, hemen Luistarren kongregaziñuan genden gu, ez giñusten bota kongregaziñotik por pelos enterau zanian parrokoa. Hor ibili giñan zerian.

-Pelikulia ikustiagatik. (barreak). Ta nik orduan euko nittun ba hemezortzi-hemeretzi urte. Holako bat.

-Oseake neskak al agarrao dantza eittiagatik zinta berdia.

-Bai. Eta Garizuman erromeixaik ez.

-Eta zuek pelikula 3R ikustiagatik ixa kongregaziñotik bialdu. Ze itten zeuen ba kongregaziño horretan?

-Kongregaziño horretan ba hillero-hillero kongregaziñuan izeten zan ba konfesau ta jaunartzia. Hillan azkenengo domeketan "Congregación de Luises". Herriko mutil guztiak.

-Baina zeuek bakarrik. Jaunartze hori eta meza hori zeuntzako bakarrik ala?

-Ez, ez, ez; beste meza bat herri danandako. Bueno, orduan herri

danandako mezak egoten zien, hiru meza egoten zien goizetan.

Seitterdieten, zortzietan eta meza nausixa esaten jakona hamarretan. Hara juten zien medikua-ta sekretarixua-ta horrek jente horrek. Hamarretakora.

-Baserriarrak seitterdittan.

-Seitterdittakora, bai, eta kaletarrak be bai. Hemen Hilaturia, Hilaturia zeon hemen Antzuelan, eta orduan zapatu gabeko errelebuak lana eitten eban, zapatuko errelebuak.

-Hilaturia? Harixa ittekua?

- [...] Harixa eittekuia, bai. Bai, Hilaturas. Tejeduría no, Hilaturas. Algodoia ekarri eta harixa eiñ. Hor ehun eta berrogeta hamar lagun ibili zien orduan lanian, gu gaztiak giñanian. Eta horko jentia zapatu gabian hamarretan sartu lanian eta goizian seiretan urtetzen eban gabeko errelebua einda, eta seitterdittako mezetara. Gehixenak lo. (Barreak). Bai, bai, bai, gehixenak lo.

18. Luistarren kongregazioa

- **Erref:** ANT-077/040
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Antzuolako mutil guztiak luistarren kongregazioan zeuden, eta eskapularioa zeukaten lepoan. Soldadu joateko, gogo-jardunak (ejerzizio espiritualak) egiten zituzten; hilabete lehenago.</p>

Transkripzioa

- Antzuolako mutil danak kongregaziño horretan (Luistarretan) zendeten?
- Bai. Bai.bai, danak.
- Distintibon bat edo zerik bazeukazuen?
- Zer bat ipintzen oskuen egun hortan, zera... Kristo Rey, kongregantian eguna zan hillan azkenengo domekia uste dot izeten zala. Zer bat,

eskupularixuak esaten jakon hola..., eskupularixuak. Lepotik esegitta. Eta gero, soldau juteko, kintuak, ejerziziuak. "Ejercicios espirituales". Nahi zebanak jun.

- Luistarrak?

- Bai. Donostian "Villa Santa Teresa". Egonda nago neu be.

- Soldau joan aurretik?

- Soldau juteko..., soldau juten zan normalmente "entre marzo y abril", ba gabon ostian hillebete lehenao "ejercicios espirituales". Soldau juteko preparatzen. (Barreak).

19. Errota motak

- **Erref:** ANT-077/050
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:58:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Errota guztiak zeuden itxita gerraostean. Bi gremio zeuden: "maquilleros" eta "harineros". Urtean zenbat kilo eta zeinentzat ehotzen zen kontrolatu behar zen. Makileroentzat inspekzio gutxiago zegoen. Errejimenaren aldekoak izango ziren makileroak. Errota noiz arte egon zen martxan. Garia, artoa eta pentsua ehotzen ziren. Garia ereiteari 1975 inguruan utzi zitzaion. Korosotik etortzen ziren ehotzera.</p>

Transkripzioa

-Erotaren bat egongo zan eregita, ezta?

-Ez. Errota danak itxitta. Dan-danak. Baina orduan bazeren, bi gremixo zeren, lehengora junda puxkat: "maquilleros" y "molineros". Errotak bi zeretari [diferentziatzen] ziren. Eta gero errotak orduan zeuden obligaziño bat urtian zenbat kilo ixotzen zan, zeñendako ixotzen zan eta bueno. Ez zan eruaten, guk ez giñuan eruaten "así a rajatabla", baiña...

-Hori errotak legala zienian?

-Bai. Hori gero, errotak legalizau zienian hala zertzen zan, bialtzen zan holako...

-Rejistro bat edo?

-Bai, pista bat. Baiña beti horrek reparu bat emoten dotsu. Joño, aber... Baiña holaxe itten zan hori. "Fulano de tal, tantos kilos de harina el día tal tal". Eruaten zebeñ kontrol bat.

-Eta zein zan diferentzia makilleruak eta molineruen artekoa?

-Ba horixe... Hainbeste aldiz zertu dot baiña hori zan udaletxiak ipinittako... Hor zeren pues, uno era..., honek makilleruak eta "había menos inspecciones que los harineros, había menos inspecciones de la guardia civil, zerak, makilleruak baino. Makilleruak más maquillaos que los harineros".

-Makilleruak eta harineruak?

-Bai, harineros y maquilleros. Errotan klasifikaziñua zeuan. Eta inspeziñuei- ta buruz eta, makilleruak zien más maquillaos. Ez dakitt nola ipinittako izena zan, ezin neike esan gaiñera seguru ze bariaziño zeuan, baiña hortik zoiatzen gauzak.

-Orduan pentsaittekua da batzuk izango ziela gobernuan aldekuak eta

bestiak...

-Exakto! Puxkat regimenan adiktuak zienak eta, hori ikusten zan, hemen Antzuelan ikusten zan hori. Bai, bai, ikusten zan. Gu oso kastigauak izan giñan hortan, asunto hortan. Oso. Alde guztietatik.

-Zuk errota hori, hiru koiñatuen arteko errota hori zuk beti ezautu dozu martxan?

-Bai, bai, beti, bai. Gero hemen. Bueno, azken urtetan, ni honaa etorri ezkerro, milla ta beratzirehun eta hirurogeira ezkerro, han ez zan lanik eingo beste errotan, gure gurasuen-eta errotan. Klaro, han be semiak eta hazi zien eta kanpuan lanien eta astirik ez eta. Ba horrek gauza guztiak jun dien bezela haura jun zan galtzen, eta hemen ba nik lehenengo urtetan ba, klaro, garixa bastante ixotzen neban eta artua be bai. Artua sobre todo. Eta pentsua-ta danak ixotzen zien orduan. Ogibide bat zan.

-Eta garixa eta artua, bertakua?

-Bai.

-Noiz geratu zan hemen garixa eraittia?

-Hemen garixa eraittiai hemen itxi jakon ba milla ta beratzirehun ta hirurogeta hamar-hamabost... Hor. Poliki-poliki jun zan. Hemen kale inguruan lehenao, zeatik hemen oin etxiak einda daren lekutan lehen danak souak zien eta garixa hartzen zan. Hemen kale ingurutan. Basarri goikuak eta, Korosotik hona etortzen zien ixotzera, e.

20. Ur falta arazo, errotan

- **Erref:** ANT-077/052
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:00:35. **Bukatu:** 01:01:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Ura izaten zen arazoa askotan errotan. Anega eta erdi ehotzeko. Udan arazoak izaten zituzten, ur faltagatik. Garia uztaila hasieran jotzen zen, eta zain egoten zen jendea.</p>

Transkripzioa

-Gero orduan ura izaten zan problemia askotan, uda partian eta, ur gutxi zeuanian ba hau beteta oin daon moduan zeuala, honek ixotzen zittuan anea ta erdi bat arto, anea bat pasautxo. Baiña, klaro, etortzen dana gutxiao bada ura ertetzen dabena turbiñan baiño, hustu eitten zan eta hau husten danian honek ez dauka presiñoik, honek ez dauka indarrik. Hori izaten zan, kalkulatzen hor.

-Udan ixoteko problemak.

-Problemak. Pasatzen da udan-udaran, klaro, hemen garixa jotia, trillatzian zain egoten zan jentia gari berrixakin iriña eitten hasteko, eta hemen garixa jotzen zan ba uztaillan lelengotan. Uztaillian izeten zan garijotia. Eta zain-zain garixa jotia errotara ekarri ta iriña ein eta.

-Bestela ur faltagatik igual urun barik geratu?

-Bai, epoka hortan ur gutxi egoten zan eta aprobetxatzen zan zeuan ura a tope, aprobetxatzen zan.

21. Irinarekin eta erbiarekin etxera

- **Erref:** ANT-078/001
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Intxausti errotako pasadizo bat. Antzuolako jaietan gertatua. Errotak prezintatuta zeuden. Irina egin zuten, astoarekin joanda. Garia jo, ogia egiteko jaietarako. Bidean erbia topatu zuten, lazoan erorita. Erbia nola larrutu zuten. Erbi erdiarekin, pozik etxera.</p>

22. 16 urterekin, gizonen pare

- **Erref:** ANT-078/003
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

16 urterako nahikoa lan eginda zeuden, gizonen pare.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com